Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko abuztuaren 8a, astelehena — 150 — Lunes, a 8 de agosto de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*392/2022 Foru Agindua, abuztuaren 2koa, uztailaren 20ko 420/2021 Foru Agindua aldatzen duena, zeinaren bidez onesten baita 369 eredua, «Balio erantsiaren gaineko zerga. Subjektu pasibo ez diren pertsonei zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek aplikagarri dituzten araubide berezien autolikidazioa» izenekoa, eta haren aurkezpen modua eta prozedura zehazten baitira.*

Uztailaren 20ko 420/2021 Foru Aginduaren bitartez, 369 eredua onartu zen, hain zuzen ere «Balio erantsiaren gaineko zerga. Subjektu pasibo ez diren pertsonei zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek aplikagarri dituzten araubide berezien autolikidazioa» izenekoa.

Eredu horren bidez, autolikidazioa egin daiteke Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legean jasotako urrutiko salmentei eta ondasunen barne entrega eta zerbitzu prestazio jakin batzuei aplikatu beharreko araubide berezi berrietan jasotako eragiketei dagokienez.

Aurkezteko epeari dagokionez, haren 3. artikuluan ezartzen da eredua autolikidazioari dagokion aldia amaitu ondorengo hilabete naturalean aurkeztuko dela.

Arrazoi teknikoak direla-eta, eta zerga ereduak aurkezteko epeak harmonizatu behar direnez, komeni da 369 eredua aurkezteko data ezartzea, autolikidazioari dagokion aldia amaitu eta ondorengo hilabete naturalaren 25 egunetan.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Uztailaren 20ko 420/2021 Foru Agindua aldatzea, zeinaren bidez onesten baita 369 eredua, «Balio erantsiaren gaineko zerga. Subjektu pasibo ez diren pertsonei zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek aplikagarri dituzten araubide berezien autolikidazioa» izenekoa, eta haren aurkezpen modua eta prozedura zehazten baitira.*

Aldatu egiten zaio 3. artikulua uztailaren 20ko 420/2021 Foru Aginduari, zeinaren bidez onesten baita 369 eredua, «Balio erantsiaren gaineko zerga. Subjektu pasibo ez diren pertsonei zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek aplikagarri dituzten araubide berezien autolikidazioa» izenekoa, eta haren aurkezpen modua eta prozedura zehazten baitira. Honela idatzita gelditzen da artikulu hori:

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 392/2022, de 2 de agosto, por la que se modifica la Orden Foral 420/2021, de 20 de julio, por la que se aprueba el modelo 369 «Impuesto sobre el Valor Añadido. Autoliquidación de los regímenes especiales aplicables a los sujetos pasivos que presten servicios a personas que no tengan la condición de sujetos pasivos, que efectúen ventas a distancia de bienes y ciertas entregas interiores de bienes» y se determina la forma y el procedimiento de presentación.*

Mediante la Orden Foral 420/2021, de 20 de julio, se aprobó el modelo 369 «Impuesto sobre el Valor Añadido. Autoliquidación de los regímenes especiales aplicables a los sujetos pasivos que presten servicios a personas que no tengan la condición de sujetos pasivos, que efectúen ventas a distancia de bienes y ciertas entregas interiores de bienes» y se determina la forma y el procedimiento de su presentación.

Mediante dicho modelo se permite la autoliquidación de las operaciones comprendidas en los nuevos regímenes especiales aplicables a las ventas a distancia y a determinadas entregas interiores de bienes y prestaciones de servicios previstos en la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

En relación con el plazo de su presentación, su artículo 3 determina que el modelo se presentará dentro del mes natural siguiente a la finalización del período al que se refiera la autoliquidación.

Razones de carácter técnico y la necesidad de armonizar los plazos de presentación de los diferentes modelos tributarios, aconsejan establecer la fecha de presentación del modelo 369 durante los 25 días del mes natural siguiente a la finalización del período al que se refiera la autoliquidación.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo único. Modificación de la Orden Foral 420/2021, de 20 de julio, por la que se aprueba el modelo 369 «Impuesto sobre el Valor Añadido. Autoliquidación de los regímenes especiales aplicables a los sujetos pasivos que presten servicios a personas que no tengan la condición de sujetos pasivos, que efectúen ventas a distancia de bienes y ciertas entregas interiores de bienes» y se determina la forma y el procedimiento de presentación.*

Se modifica el artículo 3 de la Orden Foral 420/2021, de 20 de julio, por la que se aprueba el modelo 369 «Impuesto sobre el Valor Añadido. Autoliquidación de los regímenes especiales aplicables a los sujetos pasivos que presten servicios a personas que no tengan la condición de sujetos pasivos, que efectúen ventas a distancia de bienes y ciertas entregas interiores de bienes» y se determina la forma y el procedimiento de presentación, que queda redactado en los siguientes términos:

EK\CV GAO-I-2022-05254

«3. artikulua. 369 eredua aurkezteko epea.

Autolikidazioan aitortzen den zergaldia amaitu ondorengo hilabete naturalaren 1etik 25era bitartean aurkeztuko da 369 eredua.»

*Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2022ko abuztuaren 2a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasuneko foru diputatua. (5254)

«Artículo 3. Plazo de presentación del modelo 369.

El modelo 369 se presentará del 1 al 25 del mes natural siguiente a la finalización del período al que se refiera la autoliquidación.»

*Disposición final única. Entrada en vigor.*

La presente orden foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 2 de agosto de 2022.—El diputado foral de Hacienda, Jokin Perona Lerchundi. (5254)

EK\CV GAO-I-2022-05254